

Zuzenbide
politikoaren
legeria

Legislación
de Derecho
político

Legge-testuak
Textos legales

ZUZENBIDE POLITIKOAREN LEGERIA

Lege-testu berri hau Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutuaren Liburutegi juridiko elebidunera biltzen den hamabosgarren lana da. Bada, Euskal Gaien Institutuak, Zuzenbide Fakultateko Euskara Juridikoaren Mintegiarekin batera, egin duen lan honek Espainiako antolamendu juridikoaren oinarrizko eskubide eta askatasunen babesari buruzko lege politikoak euskaraz eta gaztelaniaz jaso ditu. Gainera, lege horien buru 1978ko Konstituzioa jaso da, euskarazko testua berrikusi eta gero.

Esan beharra dago, lege politikoak euskaraz eman baino lehenago, hausnarketa sakona egin behar izan dela, hizkera juridikoak hainbat berezitasun baititu, ezaugarri linguistikoei dagokienez. Argitaratze-unea arte egindako aldarazpen guztiak kontuan hartzeaz gain, Euskaltzaindiaren jarraibide linguistikoak oso-osoan errespetatu izan dira, lege politikoaren arloan ere euskararen erabilerak eta normalizazio linguistikoak bat egin dezaten.

Orobat, bilduma elebidun honetan aurretiaz finkatutako irizpideei eutsi zaie, eta, horren eretzean, oinarrizko norabide izan dira, oraingo honetan ere, segurtasun juridikoa, bi testuen arteko baliokidetasun funtzionala eta irakurgarritasuna.

Liburu honetan, bada, eragile juridikoak eskura ditu lege politiko nagusiak, hain zuzen ere, egunero gizarte-gaietan sekulako pisua dutenak. Lege-testu guztien itzulpen eta aurkibide analitikoaz irakasle hauek arduratu dira: F. Javier Arrieta Idiakez, Anjel Lobera Revilla, Andres Urrutia Badiola eta Ester Urrutia Idoiaga. Argitaletxea, au-rretik esan dugun moduan, Deustuko Unibertsitatea. Liburuak 657 orrialde ditu. Azkenik, IVAP-HAEEren parte hartzea azpimarragarria da.